

Goierritarra

284. zenbakia

2005eko uztailak 1

Beharrean dauden haurrentzat

HARRERA FAMILIA



SILVIA MIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA

900 280 645 875 144 102

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

H O R T Z

ERABAT EGOKITUAK DAUDE . KLINIKAK SAN

K L I N I K A

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

I N T E G R A T U A

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizontasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.F.S.:32/04

BERTSOTAN



Iñaki Apalategi

Frantziako Tourra

Uztailean Frantzian
a zer panorama:
aldapan gora ezin
pedalik emana
denek merezi dute
bultzadatxo bana
baina ondo ematen
izaten da lana
beraz utzi bakean
bakean doana
helduko da lehenengo
indarra daukana.

Tourrak ere badauka
alde bat iluna:
gurpilzale gabeko
festa aparduna
errepideko festa
denen alarguna
komententzizko niki
laranjen laguna
gauak bigarren mailan
utzi du eguna
ez bedi mareatan
ito euskalduna.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424

647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Iñaki Murua

4. Ingurugiro txokoa: Ataungo
domoa4. Errezeta: Arkume masailak saltsan
Aholkua: Ikasketak udan

8. Kate motzean: Irati Aldaz

9. Elkarrizketa: Harrera familiak

13. Erreportajea: Ganbo Andere

17. Elkarrizketa: Josu eta Igor
Sarriegi

22. Non zer?

24. Debaldeko iragarkiak

30. Argazki zaharra



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro

Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Iñaki Murua

San Pedrotan mutu!

Joan dira San Joanak (izenak argi dienez) eta bertan ditugu San Pedroak. San Joanetan "kuku" eta San Pedrotan "mutu", hala egiten omen du kukuak. Baina kukuak ere ez du denen gustura jozen, ordea.

Ez naiz kukuaz eta santuez ariko, besteak beste, ez baitut horretaz sakon ari zeko behar besteko jakintzarik. Baina, badakit idatzietatik, San Pedro izan zela elizako lehen Aita Santua. Nahiz eta bere garaian Kristori uko egin ziola esaten duten, bera izan omen zen, gero, Kristok eliza eraikitzeke erabili zuen oinarria; jentilak (paganoak) elizan onartzeko baimena ere berak emana omen. Aita Santu modura zuzena eta onbera izan omen zen. Eliza pobrea, ondasunen banatzailea, aldarrikatu zuen eta kristau komunitateak sortu, hauek katakonbetan babestu behar izan zuten garaietan. Garai hartako Erromatar Inperio indartsu eta bortitzari aurre egiten saiatu zela diote, gainerako kristauekin batera, Neronek (eta ez nik), Erromako sutea sortu zutenen aurka egingdako erasoan, harrapatu eta gurutzean buruz behera hil arte martiritatu omen zuen arte.

Oraingo eliz buruek (goi jerarkak esan nahi dut) ez dute jarrera bera azaltzen egunotan: Partidu Popularrekoen eskutik dabilta manifestan, Madrilgo kaleetan. Nortzuekin eta gerraren bidez, armen indarrez, Espainiaren eta gure herriaren egoera gaineko azpira irauli zuen frankismoaren ikur eta ereduak defendatzen dituen boterearen liderrekin. Zer dela eta? instituzio baten aurka, kasu honetan matrimonioa. Homosexualena da matrimonio hori baina ez al dute horretarako eskubiderik ala? Diferentziak areagotu nahian al dabil gaurko eliza? Zergatik? Beldur ote da bere etxean egoera berriak aurkitzeko? Berritu premia galanta badaukate bada!

Eliza beti egon da dibortzioaren kontra, batzutan (dirua tarteko) ezkontza hausteko atea ireki badu ere eta orain, berriz, ezkontzaren kontra, homosexualak direlako.

Azken egunetan irakurri dut, Euskal Herrian, batz bestea, 2,3 pertsona bizi omen garela etxebizitza bakoitzean. Etxe asko hutsik dagoela. Ez naiz harritzen eraikitzeke lurak hain garesti egotea, aprobetxategiak beti izan baitira baina, hutsik hainbeste etxe eta hormigoipean lurak alferrik galtzea ere...

Dena den, batz bestea 2,3 pertsona bizi bagara etxe bakoitzean, zer familia mota antolatzen ari gara edo antola dezakegu? Ez bada bultzatzen ezkontza, elkartzea, batera bizitzea edo... zein izango da etorkizuneko haurren bizi giroa, "familia"?

Irakurri dut, aldi berean, mende erdi baten buruan, emakumeek ez dutela haurrik erdituko, bibiparotasunari utziko diotela eta bide artifizialeetatik lortuko ditugula haurrak: laborategi, negutegi edo nahi duzuen bitartekoen eraginez. Katalogoak eskura izango omen eta autoak edo beste tresna asko bezalatsu aukeratuko ditugu: ile horiak, beltzaranak, tikiak, ertainak, begi beltzak... orain adoptatzeraz doanak egiten duen bidetik. Ez dakit berdin maita daitekeen norberak erditutakoa eta adoptatua baina aitok ez dugu geuk erditurik maitatzeko aukerarik eta egiatan maite ditugu ezta? Beraz, bikote gay edo lesbiana batek, berdin maita, hezi, zaindu eta gara ditzake bere haurrak. Kasu batzutan, hobeto, agian. Gure buruetan dago tradiziozkoaren eta beharretara egokitzearen arteko borroka bizi beharra.


Erromatarren garaian soltero eta soltera egoera oso gaizki ikusita zegoen eta gizarateak presio dezentea jartzen zien horrela zeudenei, garaiok idatzietan diotenez. Gure herri honetan ere zerbait egiten hasi beharko dugu eta, elizatik hastea komeniko da, izan ere, berak ezer egin ez eta besteri galarazten ari baita. Hobe luke, beti berdina esaten aritu ordez, San Pedrotan mututuko balitz.

A, eta joan zen asteburuan Madrilén, munduko gosea desagerrarazi nahian Gobernuz Kanpoko hainbat erakundek antolatuta egin zuten manifestan, ez omen du inork obispo eta kardinalik ikusi, aurrekoan ez bezala!

Eliza beti egon da dibortzioaren kontra eta orain berriz ezkontzaren kontra, homosexualak direlako!

Egitura geologiko berezi-berezia

Ataungo Domoa



Nori ez dio atentziorik eman Ataunen, Agauntza ibaiaren eskubian (uraren norabideari begiratu) dagoen mendi tontor malkartsu lerroak? Tontor horien artean daude, besteak beste, Intzartzu, Agauzko punta eta Sastarri.

Mendi punta horiek kararizkoak dira eta, nekez erosiak direnez dauden kokapenean, paisaian oso nabarmen ikus daitezke gailurrak.

Tontor horiek, paisaian marrazten duten lerroak forma zirkular ireki bat dute, eraztun baten deitza eta egitura honi deitzen zaio domo edo kupula.


Domoaren barruko urak Agauntza ibaiaren bila doa zela ebakidura edo haitzarre ikusgarriak eratu ditu kararrian. Adibidez, San Martingo Aitzarte, Arrateta aldean, edo Kobatxo erreka egindakoa Artzatezar aldean. Bestetik, San Martin auzoan, Aitzarteko harrobian

dauden faila-ispiluak ez zaizkio atzera geratzen Ataungo domoari bitxitasunean.

Faila bat sortzen da hari bloke bat tolestu ordez indarren eraginez hausten denean. Horrela, sortutako bi bloke zatien arteko desplazamendua emanez.

Failak oso ugariak dira naturan, baino gutxitan gertatzen da, Aitzarten bezala, blokearen bi zatien arteko hausketako-azalera laua izatea. Azalera laua horri deitzen zaio faila ispilu.

Domoa eratzen duten materialak hasiera batean itsas azpian zeuden geruzak antolatuta (1). Gero indar perpendikularrek tolestarazi zituzten materialak domo edo kupula forman itsas gainera altxatuz (2). Urak domoaren gaina, oso hautsitako kararria zuena, erosi zuen lehendabizi eta gero azpiko buztinariak, askoz bigunagoak, krater forma hartuz (3).



Aitzarten bi faila-ispilu daude, bi pareta lau, hori ikus daitezkeelarik zati bat besteari kontra desplazatu zenean sortutako ildaskak. Ildaska horietan eskua leunkien pasatzen den norabidea da desplazamenduarena.

Harrobi horretan oso ongi ikus daitezke kararri hori sortarazi zuten arrezifetako bizidunen fosilak.

Bukatzeko aipagarria da domo honetan bi kobazulo ospetsu ere badaudela: Troskaeta eta Sastarri.

Joxan Auzmendi

JAKIN BEHARREKOAK

Euskal Elkarte Autonomoko Hezeguneen Lurralde Plana azken azaroran onartu da eta horren barnean Goierriko hainbat hezegune inbentariatu dira: Lareoko urtegia Ataunen, Arriarango urtegia Beasainen, Barrendiola eta Urtatzako urtegiak Legazpin, Altamirako putzua Ordizian eta Urdalurreko urtegia eta Arbarraingo zohikaztegia Seguran. Plan horrek hainbat gomendio luzatzen dizkie Udalei, naturagune horiek babes ditzaten.


Italian zerga altuagoak 4x4 ibilgailuentzat. 4x4 ibilgailuek sortzen dituzten CO2 emisioen arabera zerga berriak ordaindu beharko dituzte. Ibilgailu horien kontsumoa arrunt bikoitza da, CO2 hiru aldiz emititzen dute eta beste gidarientzat arriskutsuak dira. Zerga berri horiek oso kutsakorak diren beste ibilgailuei ere aplikatuko zaizkie.

Gaixotasunen herena ingurumen eragileek sortutakoak dira. "Ecología y Desarrollo" delako Fundazioaren arabera, mendebaldeko hiritarren odolean, ingurumenetik eratorriko 40 sustantzia toxiko aurkitu dira. Institutio horren arabera, Osasungintzaren helburua prebentzioa izan beharko luke, osaketa baino.

Haurrak mobiletik urrun. Horixe diote, Erresuma Batuko Osasun Ministeritzako adituek. Urtrilean aurkeztutako txostenean, haurrek telefono mobilaren erabilpena gutxitzeko gomendatzen dute, batez ere zortzi urte azpikoek. Horren ondorioz, Erresuma Batuan haurrentzat zuzenduriko larrialdietarako lehenengo mobila merkatutik erretiratu dute.

Energia (I)

Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak



Kontsumitzaileak eta bereziki gobernauk, petroleoa gero eta urriagoa dela kontzientziatu behar lirateke. Erretsebak erdira iristen ari direla diote jakitunek eta krisi batean sartuko gara neurriak hartzen ez baditugu. Energia aurreztu beharrean gaude.

Eusko Jaurlaritzak bi helbururekin aurre egiten dio egoera honi: efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien bultzatzea. Hauei erantesten zaie gas naturalaren aldeko apustua trantsizio energia bezala, hamarkada honen amaierarako kontsumo energetikoa %52 suposatuz.

Lehenengo ikasgaia efizientzia energetikoa da. 2000. urtean Euskadik petroleoaren 6,7 milioi tonelada baliokide kontsumitzen zituen. Aurrerantzean eritimo berdinarekin jarraituz, Eusko Jaurlaritzak 2010. urtean 9,4 milioi tonelada baliokide kontsumitzera iritsiko garela aurreikusten du; eskaera energetikoa ekonomiaren gainetik egongo litzateke, hamar urtetan %40ko hazkundera emango bait litzateke. Honek esan nahi du ez dagoela Garapen Iraunkorrik.

Gu ez gaude gaizki kokatuta, Euskadik duen tasa biztanleko eta urteko 2,42 toneladatarako baita, Euro-



pako media 2,58 den bitartean. Europako media baino errenta handiagoa daukagu eta petroleo gutxiago kontsumitzen dugu.

Energiaren aurrezte honetan, garraio politikak garrantzia handia dauka, petroleoaren bigarren kontsu-

mitzaile handiena baita, industria lehenengoa izanik. Azken urteetan garraioa izan da gehien areagotu den sektorea, erronka handia da.

Gainera, kontsumitzaile handienetako bat izateaz gain, garraioak Ingurume-

nean eragin handia dauka, berotegi-efektuaren eragile nagusia CO₂-a baita. Planeta energia termikoaren hartzaile eta igorle delako gertatzen da berotegi-efektua (eguzkiaren energia jasotzen du eta energia igortzen du kanpora). Atmosferan CO₂-a eta antzeko gasak metatzen direnean, pantaila moduko bat sortzen da, eta pantaila horrek, eguzkiaren izpiei sartzen uzten badie ere, ez du uzten lurretik igorritako beroa kanporatzen. Horren ondorioz, planetaren tenperatura igotzen ari da, ezin baitzaio jasotakoaren eta igorritakoaren arteko orekari eutsi. Berotegi-efektua da Lurraren berotze globalaren errudun nagusia.

Garraioaren erabilera murrizteko herritarren kontzientziazioa beharrezkoa da eta autoaren erabilera gutxitu beharra dago.

Bigarren ikasgaia energia berriztagarriak bultzatzea da (eguzki-energia, energia eolikoa, energia hidroelektrikoa, etb.), orain daukagun %4tik, 2010. urtean %12ra pasa ahal izateko. Energia berriztagarriak etengabe sortzen dira eta gizakientzat agortezinak dira. Ezaugarri nagusi bat da: energia aurreztu eta Ingurumena errespetatzen duten energia-iturriak dira.

Garraioak Ingurumenean eragin handia dauka, berotegi-efektuaren eragile nagusia CO₂-a baita.



kutxa

gizarte ekintza

SUKALDEAN



Xabier Martinez
Martinez jatetxea
Ordizia

Osagaiak (6 lagunentzat):

- 30 arkume masail
- 1/4 litro ardo zuria
- Irina
- 2 pipar berde
- 2 tipula
- 1/4 litro tomate salda
- 1/4 litro haragi salda
- 1/4 kg ilar
- 3 patata
- Gatza eta piperbeltza

Arkume masailak saltsan

Lehenik eta behin, arkume masailak frijitu gatzarekin eta irinarekin.

Tipula eta piper berdeak txikitu eta olio pixka batekin jarri kazola batean. Gorritzen hasten denean, irin pixka bat eta ardo txuria bota eta sua bajutu.

Behin sua jaitsita dagoe-la, tomate saltsa eta arkume masailak bota kazolara eta su bajutan egosten utzi.

Sutan denbora bat egon ondoren, haragia samurtzen ari dela konturatzen garenean, haragiaren saltsa bota kazolara. Horretaz gain, ilarak eta patata zatiak ere bota bertara.

Egosten utzi kazolari ordu erdiz baina su bajutan eta zerbitzatzeko prest egongo da. Ahal izanez gero, buztinezko kazola batean zerbitzatu.

Ikasketak udan

Ikasturtea amaitu da dagoe-neko baina gazte eta haur ugari izaten dira udan ikasi beharra izaten dutenak. Hori dela eta, klaseak ematen dira. Udako aisialdia ere, modu lasai batean eta presiorik gabe, lanerako oso garai ona da. Horregatik, goizean ordu bat edo bi eskaintzea oso egokia iruditzen zaigu.

Oso zerbitzu desberdina ematen dira udan. Alde batetik, ikasturtean zehar zailtasunak izan dituzten ikasleei edota datorren ikasturtea prestatzen hasi nahi dutenei zuzendutako eskola

laguntza eskaintzen da. Bestetik, tailerrak egoten dira irakurmena, idazmena, ulermena, arreta, ikas-teknikak etab. lantzeko bideratuak daudenak. Informatika ikastaroak ere eskaintzen dira: word, acces, excel, internet... nahiko eskeintza zabala izaten da ikasi nahi duenarentzat.

Udan ikastea oso garrantzitsua da. Ikasteko garairik ez dago, beti dago zer ikasi eta zer sakondu. Uda partean ikasturtean zehar denbora falta zaigulako egin ez ditugun jarduerak, ikastaroak... egin daitezke.

Lehen Hezkuntzako haurrekin hasi eta unibertsitatean daudenek ere har ditzakete klaseak. Baina horiez gain, langile edo jende helduagorentzat ere izaten da lekua. Halaber, informatika, ingelesa edota euskara ikasi nahi dutenek badute aukera.

Kurtsoan zehar egin ez diren lanak, nekez egin daitezke egun gutxi batzutan. Hori dela eta datorren ikasturteari begira ikasketak hasieratik ondo eramaten saiatu behar da, eta behar izanez gero, lehen egunetik laguntza bilatu.

AHOLKUA



Karolina Soto eta Ana Mari Urieta
Ikaskide irakaskuntza zerbitzuak



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04



Nola hasi zinen telebistan lanean?

Andramendi ikastolan nengoela Betizu programakoak etorri ziren. Txisteak kontatzeko esan ziguten eta horixe egin nuen. Pertsona batzuk aukeratu gintuzten eta hortik Betizura joan ginen. Han Saloura bidaia bat irabazi nuen eta ordutik aurrera, beste gauza batzuk egiten aritu naiz.

Zenbat denboran aritu zara lanean?

Bost urtez aritu naiz lanean telebistan, 9 urterekin hasi nintzen eta 14rekin egin dut azkeneko lana. Betizun hasi nintzen eta horren ondoren beste hainbat lan egin ditut, besteak beste, Betizuzen, Miramonen Zientzia kutxagunea eta Euskal Herria ezagutuz programa.

Esperientzia hau gustatu al zaizu? Zergatik?

Esperientzia asko gustatu zait. Jende asko ezagutzen da eta lagunak ere egiten dira. Gainera, jende ezaguna ezagutze-ko aukera ematen du.

Eta orain ez duzu jarraitzen. Nolatan?

Telebistaren mundua horrelakoa da. Gaur lanean zaude baina bihar ez. Hala ere, Euskal Herria ezagutuz bukatu dut baina beste edozer atera daiteke. Itxaropena badaukat. Hurrengo lana atera arte zain egongo naiz.

Zu horren gaztea izanik, arraroa egingo zitzaizun lan munduan sartzea ezta?

Bai, hasieran arraroa egiten zitzaidan eta urduri egoten nin-

“Jende aurrean egotea baino nahiago dut kamera baten aurrean aritzea”

tzen, baina, gauza guztietan bezala, ohitu egiten zara eta gero lasai egiten duzu lana.

Betizun marrazkiak egiten aritzen zinen. Nola ikasi ze-nuen, afizioz?

Bai, marrazkiak egiten hasten nintzen baina ez nituen nik amaitzen. Beste bat zen marrazkiak egiten zituena.

Eta zaila al da kamera aurrean lan egitea?

Niretzako ez. Hasieran urduri egoten nintzen baina izugarri gustatzen zait kamera aurrean egotea. Nik nahiago dut jende aurrean egotea baino kamera aurrean egotea.

Esperientzia horrek zer erakutsi dizu?

Batez ere lotsa kentzen. Hasieran lotsati xamarra zara baina kamera aurrean ohitu eta gero, jendearekin komunika-tzea ere errazagoa egiten da.

Heldua zarenean telebistan lan egitea gustatuko al li-tzaizuke?

Bai, handitan telebistan lan egitea gustatuko litzaidake.

Zer izan nahi duzu?

Kazetaritza ikasketak egin nahi ditut eta horretan lan egitea gustatuko litzaidake. Gainera, kamera aurrean lan egitea gustuko dut eta telebistan egon nahiko nuke. Hala ere, irratia gustuko dut.

Eta zer ez?

Sendagilea.

Oporretan zer egingo duzu?

Uda honetan Donostian ibiliko naiz.

Amets bat?

Handitan kazetaria izatea, jende asko ezagutzea eta dena ondo joatea.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Odol ezberdineko familia



Harrera familia

Oskar Soto eta Arantxa Esnaola harrera familia bat dira. Hau da, familia baten beharra zeukan haur bat hartu zuten beraien etxean. Bikote honek bi haur dauzka, bai-

na, hala ere, beste haur bati laguntzeko prest agertu ziren eta beraien etxean hartu zuten. Jada hiru urte dira haur hori etxean dutela eta oso gustura daudela agertu dute.



**Jauregi
TOLDOAK**



INSTALATZAILE OFIZIALA



laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82

Nolatan sartu zineten harrera familiaren proiektu honetan?

Hasiera oso sinplea izan zen. Goiz batean etxean geundela irratian entzun genuen harrera familien bila zebiltzala eta kanpaina bat martxan jarri zutela. Ondorioz, telefonoa apuntatu genuen eta gure artean ideia horretaz hitz egin ondoren, deitu egin genuen nondik-norakoak jakiteko asmoz.

Bertan harrera familia baten zeregina zein zen agertu ziguten. Haur pila bat laguntza beharrean zutela adierazi ziguten eta harrera familien zeregina argitu ziguten.

Horrela, helburua haur horiek beraien familia biologikoarekin bueltatzea dela azpimarratu zuten. Baina, denbora tarte batean, etxeko arazoa konpondu artean, beste familia batean egoten direla aipatu zuten.

Eta harrera familia egitea erabaki zenuten.

Bai. Kurtso informatibo batzuk egin ondoren, haur horietako bat gure etxera ekartzea pentsatu genuen. Guk bi haur dauzkagu eta beste bat ekarri edo ez pentsatzen ari ginen. Eta hau sortu zenean, haur horietako bati laguntzea erabaki genuen.

Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ginen eta gure etxea ikustera etorri ziren. Beraiek etxean begiratzten dituztenak ikusi zituzten eta joan egin ziren. Bisita horren ondoren, denbora gutxira, haurrarekin harremanetan jarri gintuzten.

Nolakoa izan zen hasiera haurrarekin?

Poliki-poliki hasi ginen harremanetan. Aurreneko aldia denbora bateko bisita egin genuen, gero luzeagoa eta gero luzeagoa. Bisita txoen ondoren, asteburuetan gure etxera etortzen hasi zen haurra. Prozesua bi hilabetekoa izan zen gutxi gora-behera. Gero ia gure etxean jarri zen eta oso on-



“Esperientzia ona eta aberasgarria izateaz gain, egiteko bat dela ere uste dugu”

Harrera familiak behar dira eta kanpaina egiten ari dira. Jendea nola animatuko zenukete parte hartzera?

Zenbait momentutan egoera zailak izan arren, esperientzia aberasgarria da. Horregatik animatuko genuke jendea esperientzia hori bizitzera. Gainera, guk uste dugu egin beharreko gauza bat dela, denon arazoa dela.

Gizartearen ardura bat da ume horiek horrela egotea. Haur horiek hor daude gizartearen arazo batzuen ondorioengatik. Horregatik, guk uste dugu, ume bat izan nahi duenak eta etxean lekua daukanak, harrera ume bat hartu behar lukeela. Kontzientziako gauza bat da.

Harrera familien artean harremanik ba al daukazue?

Bai harremana izaten da. Gainera, Gipuzkoa mailan Beroa izeneko elkarte bat dago eta horiek gauza asko azaltzen dituzte. Urtean behin elkartekoekin elkartzen gara eta Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako elkarrekin ere biltzen gara.

Oso ongi etortzen da, izan ere, hemen oso harrera familia gutxi daude. Gizartea sentsibilizatu beharra dago horrelako gaien inguruan. Izan ere, haur asko dira familia baten beharrean daudenak.

Laguntza ekonomikorik ematen al zaizue harrera familiei?

Bai, laguntza ekonomikoak ematen dira. Haurra ekonomikoki independentea da, ematen duten diruarekin haurra mantentzeko nahikoa da.

Bestalde, Foru Aldundia egiten da haurraren kargu. Ondorioz, ebakuntza bat edo horrelako gai bat suertatzen denean edo egin beharra dagoenean, Aldundiak hartu behar du egin behar denaren erabakia. Guk haurra zaintzeko eskubidea daukagu baina ezin ditugu horrelako erabakiak hartu.

do joan da dena orain arte.

Erabakia hartu zenutetik prozesua nolakoa izan zen?

Elkarrizketak batzuk egin zizkiguten gure egoera ekonomikoa eta horrelakoak ezagutzeko.

Baina, prozesua batez

ere psikologikoa izan zen. Hau da, familiak argi izan dezan hau harrera dela, ez dela adopzioa.

Garrantzi handiena harrera familia izatea zer den garbi izateari ematen diote. Izan ere, beldur izaten dira familiak haurra berea beza-

la hartzea, eta ez da horrela. Ume horrek bere familia biologikoa dauka eta arazoa konpontzen denean bere etxera bueltatuko da.

Gero zure profila egiten dute, eta gure kasuan, psikologoak esan zigun lehenetik neska bikiak genitue-



nez, mutil bat hartzea izango litzatekeela onena eta baita gureak baino gazteagoa izatea ere.

Beraz haurraren perfil bat egokitzen da familiaren perfilera.

Bai, ez da edozein ume izaten. Ez da zu zerrendako hogeigarren familia zarela eta hogeigarren haurra ematen dizutela. Kasu bakoitzari dagokion haurra ematen diote. Familia batzuk urte bat baino gehiago

egon dira haurraren zain, eta guri aldiz bi hilabetera umea ekarri ziguten.

Haurra etxean zenbat denbora egongo den agertzen al dute?

Bai, gutxi gora-behera jakiten da. Bi harrera mota egoten dira, bata soila da eta bestea iraunkorra. Soilean haurra gehienez bi urtean edukitzen da eta iraunkorrean aldiz gehiago, bi urte-tik gora. Kasu horietan familia biologikoaren oreka

ez da oso ongi ikusten. Eta aipatu behar da, normalean harrera soilak ez direla egiten. Kasu horietan familia biologikoari laguntzen zaio egoera hobetzeko.

Beraz haurra ez dute bat-batean eramaten, ikusi egiten da.

Hori da. Guk gainera, haurraren familia biologikoarekin harremana daukagu eta badakigu nola doan dena. Gauzak hobetzen doazenean, jakinaren gainean egongo gara eta ez dugu haurra bat-batean galduko.

Kalean jende guztiak galdera berdina egiten digu: Eta haurra kentzen dizutenean zer? Guk denei berdina esaten diegu: pentsatzen dugu gure haurrak joaten direnean bezala sentituko garela. Hala ere, haurrak badaki bere familia biologikoa hor daukala eta gu ere hemen egongo garela edo zertarako.

Zer izan da zuentzako zailena?

Adaptazioa, baina gurea. Haurrek oso ondo hartu zuten egoera.

Hasiera batean gure haurrek nola hartuko zuten beldur ginen, baina gu baino hobeto egin ziren egoera berrira. Gure bikiek lau urte zituzten gurera etorri zenean eta berak bi urte.

Beraz, zailena adaptazioa izan zen guretzat. Izan ere, haurrak istorio bat dauka atzean, ohitura batzuk, izateko era bat, eta horretara

ohitzea ez da erraza egiten.

Aberasgarria izango da horrelako esperientzia bat ezta?

Bai, oso aberasgarria. Guretzako harreraren gai hau ona da, izan ere, guk etxean lekua daukagu eta haur honek hori behar du. Badakigu edozein momentutan bere familia biologikoarengana joan daitekeela, baina, guretzako beste seme bat da. Gurekin dagoen bitartean, hiru seme-alaba daukagu.

Haur hau bere familiarengana bueltatuko balitz orain, beste bat hartuko al zenukete?

Bai, errepikatuko genuke esperientzia. Haur bat izan nahi duen edonork hartu dezake harrera ume bat etxean. Berdina da, bakarrik harrerakoa dela garbi eduki behar dela. Ezin da begiratu propietate kontzeptu horrekin. Ez da zuk erditutakoa baino berdindio, zure haurrek ematen dizuten berdina ematen dizu harrerakoak.

Haurra gustura al dago?

Oso gustura. Gainera, beraz gain, gure haurrek ere gauzak ikasiko dituzte esperientzia honekin.

Orain ez dira konturatzen gauzetaz, baina ongi etortzen da haur guztiak egoera ezberdinetan jaotzen direla ikusteko eta lagundu egin behar dela jakiteko.

Haur bakoitzak dituen beharretan oinarritzen dira harrera familia aukeratzeko.

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 **ATAUN**

Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 lgara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Harrera familiari buruzko argibideak

Zer da harrera familia?

Harrera familia legezko neurri bat da eta harrera horren bidez, adingabearen zaintza pertsona edo familia bati ematen zaio. Aldi batean haurra zaindu, elikatu eta hezi egingo dute haurraren familiaren osagarri bihurtuz. Adingabearen eta zaindu ezin duen familiaren aldeko egintza bat da; baina harrera familiak ez du berezko familia ordezkatu nahi, eta errespetatu egin behar du familia biologikoa.

Batzuetan harrera familia familia biologikoaren kidea izaten da. Hau da, adibidez, amona batek alabaren arazoak direla eta bilobaren zainketa bere gain hartzea.

Ezaugarriak

Ondorengo hauek dira familia harreraren bi ezaugarri nagusiak:

-Aldi baterako izatea. Helburua adingabea bere etxera itzultzea da bere familiak izan dituen arazoak gainditu ondoren.

-Bere familiarekin harremanetan egotea bisiten bidez. Gipuzkoako Foru Aldundia denez adingabeak babesteko ardura duena, bera da, epaitegiari jarraituz, bisitak erregulatzen dituena, adingabea zer komeni zaion ikusi ondoren. Baina ez dira nahastu behar adopzioa eta harrera familia. Adopzioa egoera finko eta itzulezina da; harrera familia, berriz, aldi baterakoa da.



Adingabeen nondik norakoak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean dauden adingabeak dira. Familia giro egokirik ez dutenak dira. Horrelako egoera batean egon daitezkeen haurrak, nerabeak, gazteak, anai-arrebak, eta baita ere afektibitatez ez duten neska-mutikoak, ezindu fisiko, psikiko eta sentorialak, eta batzuetan, ondo

portatzeko zailtasunak dituztenak.

Batzuetan desorientatuta dauden haurrak dira, izan ere beren familiakoen-gandik zergatik aldentu behar dituzten ez baitute ulertzen.

Seme-alaba gisa maitatu behar diren haurrak dira, hartzaileek ez dute, ordea, ahaztu behar egunen batean beren familietara itzuliko direla.

Hartzailea izateko

Familiako guztiek erabat ados egon behar dute, guztien artean gogoeta egin eta erabaki bateratua hartu ondoren.

Haurra familian hartzen da, ez da adoptatzen. Haurra den bezala hartzeko prest egon behar da: bere historiarekin, ohiturekin, familiarekin eta izaerarekin. Bestalde, familian hartu aurretik, prestakuntzaldi bat egingo da aholkuak jasotzeko, eta aholku horiek onartu egin beharko dira.

Laguntza motak

Familiak beharrezko prestakuntza eta aholkularitza izango dute harrera familia hobeto ezagutzeko. Haur jakin batentzat familiarik egokiena zein den erabaki ondoren, haurrak eta harrera familiak denbora bat izango dute elkarrekin ohi-tzeko. Denbora horretan talde teknikoaren laguntza izango dute haurrari edo haurrei (anai-arrebak direnean) familia unitate berrian ongi txertatzen laguntzeko eta agertu daitezkeen arazoak konpontzeko.

Haur bat etxean hartzea ez du familiaren ekonomian gainkargarik sortu behar. Administrazioak zenbait laguntza jarri ditu horretarako eta familiak ez du beren gain hartuko guztia.

Edozein zalantza argitzeko Beroa elkartera deitu, Gipuzkoako harrera familien elkartera: 943 245604.

Aldi batean haurra zaindu, elikatu eta hezi egingo dute haurraren familiaren osagarri bihurtuz.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Artisau lanaren emaitza

Gaueko lentzeriari buruz aritu gara solasean Mirari Azkune-ekin eta Maria Jesus Jauregi-ekin. Ganbo S.A. izeneko enpresa honek Andere lenceria marka produzi-

tzen du eta produktu berezia egiten dute. Izan ere, lehengai ona erabiltzen dute lanerako eta artisau lanari esker, amaiera ezberdinak lortzen dituzte: elegantea, maternal eta informala.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

etxekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Kamisoiak, batak eta pijamak egiten dituzte Andere lentzerian. Haurrentzako produktuetatik hasi eta helduek ere erabiltzeko gauzak egiten dituzte. Andereko lentzeria gehiena emakumeei zuzendua dago Maria Jesus Jauregik adierazi digunaren arabera: "Gizonezkoentzat ere egiten ditugu gauzak, baina, gehiena emakumeei zuzendua dago".

Gaueko lentzeria deitzen zaiona egiten dute Zaldibian kokatuta dagoen lentzeria enpresa honetan. Beraien arabera, gaueko lentzeria horren barruan sailkapen ezberdina egiten dute: elegantea, maternal eta informala. "Hala nola, haurdun dauden emakumeentzako kamisoiak, batak eta horrelakoak egiten ditugu. Honi estilo maternal deitzen diogu. Horretaz gain, andregai zuzenduta oparitzeko kamisoiak egiten ditugu eta horiek nahi izanez gero eleganteagoak ere badaude. Eta ondoren, praktikoetan edota informaletan sartzen ditugu pijamak".

Ganbo S.A. lantegia, enpresa bezala, 1983an hasi zen lanean. Beraien artean josten zekiten batzuk zeuden eta beste batzuk aldiz, kontaktuak zituztela aipatu du Jauregik. Horiek elkartu eta lentzeria bilduma txiki bat egitea pentsatu zuten merkatua ezagutzen joateko. Mireia Azkuneraren esanetan, Euskal Herrian zer-bait berezia dago lentzerian eta haurren arropan. "Lentzeria berezia da artisau lana delako eta oso landua delako".

Hasiera batean, Euskal Herrian eta Katalunian hasi



Mirari Azkune

ziren beraien produktua saltzen. "Ikusi genuen gustatu egin zela eta jarraitzea pentsatu genuen", agertu du Jauregik.

Prozesuari buruzko argibideak

"Prozesu guztia hemen egiten dugu. Selektio lana, puntila edo parpaila lana, hornitzaileen lana eta diseinuak". Tela Kataluniatik ekartzen dute Anderekoek egun. Baina, kalitatezko telak leku ezberdinetatik ekarri izan dituzte. Izan ere, hasieran Valentziatik asko ekartzen zen baino gero lantegi horiek desagertzen joan zirela aipatu dute. Ho-

Ganbo S.A. Gaueko lentzeria berezia

Zaldibian kokatzen da Ganbo enpresa eta Andere markako lentzeria egiten du. Erabiltzen duten materiala dela eta, erdi-go mailako lentzeria produzitzen dute.

1983an sortu zen lantegia eta gauza asko aldatu dira sorreratik. Aldaketarik handiena merkatuarena izan da eta eragin handia izan du Anderen zein horrelako beste lantegietan. Izan ere, kanpoko hainbat herrialdeekin harremana galdu dute euroaren zein Txinaren ondorioz.

ri dela eta, Ingalaterratik, Hong Kong-etik eta beste hainbat lekuetatik ekarri izan dituzte beharrezko lehengaia.

Gaur egun adibidez, zeta Ingalaterratik ekartzen dute eta poliesterra berriz Italiatik. "Ehunari buruzko

azoka bereziak egoten dira eta horietan ikusten dugu gutxi gora-behera materiala nondik ekarri".

Lana eta produktua

Andere lentzeria berezia dela adierazi du Azkunek, bai produkzio lanagatik eta bai-



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL



KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

ta produktuaren kalitatea-
rengatik ere: "Gure lana ar-
tisau lana da. Merkatuan
dauden produktu hobere-
netarikoak erabiltzen ditugu
lentzeria egiteko. Produktu
naturalak erabiltzen ditugu
gehienak, hau da, algodoia,
lihoa eta zeta adibidez."

Behin materiala erabaki
ondoren, lantzeko proze-
suari ekiten diote. Lehenen-
go diseinua erabakitzen du-
te eta horren arabera bere-
zitasuna lantzen dute. Adi-
bidez, kamisoi batzuetako
pleguak banan-banan egi-
ten dituzte eta parpaila
moztu eta forma eman ere
banaka egiten dute. "Beraz,
esan liteke produktuek ba-
lio gehitua daukatela" ager-
tu du Jauregik.

Diseinua ere bertan egi-
ten dute. Denborarekin al-
datzen joaten dela agertu
dute, baina garrantzi handia
daukala ehunak. Halaber,
batzutan oso berezia den
tela zati bat ikusten dute eta
burura etortzen omen zaie
zer egin eta nola egin behar
duten. "Gero gustuen ara-
bera desberdinak egiten di-
tugu eskotearen forma era-
bakiz, zer bait zabala edo
estua izango den zehatzuz
eta egingo dizkiogun bere-
zitasunak argituz". Horretaz
gain, gaueko lentzeria taila
handietan ere egiten dutela
jakinarazi dute.

Salmenta eta publikoa

Publiko zabala daukate Zal-
dibiako lantegiko kideek.
Izan ere, haurrei oparitzeko
produktuak egiteaz gain,
emakumeei oparitzeko ere
egiten dituzte.

Bestalde, goiko aldetik
irekitzen diren modeloak
ere egiten dituzte, haur txi-
kiak dituzten emakumeen-



gan pentsatuz. "Horrela, ka-
misoiak zabal antzekoak
izaten dira eta botoiak di-
tuzte amak haurrari titia
emateko garaian ahalik eta
komodidade gehien izate-
ko".

Goierriko hainbat den-
detan aurki daitezke Ande-

re lentzeriako produktuak.
Baina, Euskal Herritik kan-
pora ere saltzen dute. Hala-
ber, produzitzen dutenaren
%15a kanpoan saltzen da,
batez ere, Europan, baina,
Ameriketako Estatu Batue-
tan eta beste hainbat he-
rrialdeetan ere badituzte

salmenta leku puntualak.
Garai batean munduko he-
rrialde askotan saltzen zi-
tuzten Andere produktuak,
baina garai hori aldatu egin
zen.

Lehenago, Parisen kon-
taktuak egiten zituzten: "Pa-
risko azoka batera joaten gi-
nen kontaktuak egiten geni-
tuen. Horrela, gure produk-
tuak Japon, Saudi Arabia,
Australia eta beste hainbat
lekutara bidaltzen genituen.
Orain aldiz, ezberdina da".
Aldaketa nabarmena egon
da merkatuan Anderekoen
ustez. Lehenengo golpea,
Golfoko gerrak ekarri zuela
aipatu dute eta bigarren al-
diz, euroak. "Gerra zela eta,
Arabiako kideak ez ziren
azokara etortzen eta harre-
manak galtzen joan ziren.
Ondoren, euroaren sarrerak
ere golpe handia ekarri
zuen". Hala ere, orain arte
gogorrena Txinaren konpe-
tentzia izan dela azpimarra-
tu dute eta oraindik egoera
okertu egingo dela pentsa-
tzen dute.

Material ona

"Egia da material ona era-
biltzen dugula eta gure pro-
duktuak bereziak direla"
adierazi dute. Beraien ustez,
erabiltzen den algodoiaren
arabera produktua hobea
izaten da, baita hariaren ka-
litatearen arabera ere.

Hori dela eta, denak zer-
bait ezberdina bilatu nahian
dabiltza. Izan ere, Txinaren
konpetentziaren arazoa hor
dago eta beraiek mugak jar-
tzen ari dira: "Denok mu-
gak jartzen ari gara eta bel-
durra ematen digu material
pilo batean sartzeak. Den-
detan berdina gertatzen ari
da, beraiek ere nabaritzen
dute Txinaren eragina".

Produzitzen dutenaren %15a Europako
herrialdeetan saltzen dute eta beste
salmenta puntu batzuk ere badituzte

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko menua

943 88 77 26 ALTZAGA



Eskulana oso merkea da Txinan eta horrek eragin nabarmena dauka bertako lantegietan

Urte hauetan denetan gogorrena Txinaren konpetentzia izan da Andereko langileentzat. Izan ere, Txinan eskulana oso merkea da eta produktua hemen baino askoz ere merkeago saltzen dute.

"Txinako produktua ez da oso landutakoa eta balio gutxi izaten du", adierazi dute Jauregik eta Azkunek. Hori dela eta, bertako jendea produktu merkeak erostera ohitu dela nabarmendu dute: "Garai batean jertse bat 10.000 pezeta ordaintzen genuen, baina, orain erdia ordaintzera ohitu gara eta gainerakoak izugarri garestiak iruditzen zaizkigu". Baina beraien ustetan, egiten den lana ez da berdina. Txinan eskulana merkea da, langileek ordu pilo bat sartzen dituzte eta ez dute ia ezertxo ere kobratzen. Hemen ordea, eskulana garestiagoa da eta gainera gehiago ordaintzen da. Beraz, hori dela eta, hemengo produktua garestiago ateratzen dela argitu dute.

"Txinako konpetentzia jada ez da produktuaren kopia merkea bakarrik", aipatzen dute. Egun, lehengai eta telak ere kopiatzen dituztela esan dute eta gainera askoz ere merkeagoak



egiten dituztela. "Zuk tela zati bat bidaltzen diezu Txinakoei eta berehala kopiatzen dizute ia berdina eta prezio askoz merkeagoan".

Txinakoen konpetentzia desleala dela uste dute. Izan ere, kondizio ezberdinetan egiten da lana.

"Mugarik ez dago, hau

da, nahi duten kantitate kopurua sar dezakete Txinakoei hemen". Arantzelak badaude, baina kantitateari dagokionez muga kendu egin zuten urtarilean. "Egun dagoen arantzelak beraiei ez die asko eragiten, izan ere, produktu oso merkea sartzen dutenez, aran-

tzelarekin zer bait igotzen zaie baina hala ere hemengo baino merkeagoa gertatzen zaie". Beraz, mugak jartzea jada alferrikakoa dela aipatzen dute Anderekoei, mina jada eginga dagoelako. "Guk hemen alkandorra bat ezin dugu hiru eurotan egin eta Txinan egiten dute. Gainera, oraindik min gehiago egingo digute, hemen tailerrak jarri behar dituztelako eta nahi dutena erosiko dutelako. Merkatua librea da, baina denek kondizio berdinetan egin beharko genuke lan, bestela jan egingo gaituzte".

Merkatua librea da, baina denek kondizio berdinetan egin beharko genuke lan.

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa:**

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, Urbalde plaza, 7 behe, Beasain

IÑAKI ARIN

Aseguruak

☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Josu eta Igor Sarriegi anaiak: futbolaren bi ikuspegi

Josu futbolaria da eta Alaves taldean jokutzen du. Bere taldea bigarren mailatik lehenengo mailara igo da eta oso pozik dago lortutakoarekin. Bere anaia Igor ere gustura dago, izan ere, urte betean Alavesen futbol taldea, eta bide batez, anaia jarraitzen aritu da ETBn.



IBAI ONDO



Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gi-
da-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Igoera nola hartu duzu eta nola ospatu duzue?

(Josu) Oso pozik hartu dugu eta normala den bezala, ospakizunekin gozatu dugu. Zaleekin, klubekoekin eta jokalariekin ospatu dugu garaipena. Aste guztian zehar jaiak egiten ibili gara eta oso ongi ibili gara.

Momentu bereziak izango dira ezta?

(Josu) Bai, batez ere, lehenengo mailan eta UEFAn ibili den talde batentzat. Goian egon eta gero bigarren mailara jaistea eta urteetan hor egotea gogorra da bai klubarentzat eta baita zaleentzat ere. Horregatik, igoera hau oso berezia da guretzat.

Zuk nola bizi izan zenuen partidu hori?

(Igor) Gustura. Urte guztian talde bat jarraitzen duzue, an, taldea zure egiten duzu eta igoerak poztu egiten zaitu, nahiz eta zurekin ez zerikusirik izan. Gainera, anaia bertan egonda eta lana ona izanda, are gehiago. **Biotatik zein poztu da gehiago?**

(Josu) Dударik gabe ni. Talde barruan jolasten egoteak asko esan nahi du eta bertako partaide sentitzen zara. Igoera batean egotea gainera, ez da oso arrunta eta une berezia da, ez da askotan gertatzen den gauza bat. Duela bi urte Eibarren ari nin tzen jokatzeko eta Alavesera joan behar nuen mo-



Ezkerrean, Josu Sarriegi Alaves taldeko futbolaria eta eskuinean, Igor Sarriegi ETBko kazetaria, aurten berak egin du Alaves taldearen jarraipena.

mentuan jaitsi zen bigarren mailara. Ni oso pozik nengoen lehenengo mailara salto egin behar nuelako eta azkenean berriro ere bigarren mailan jokatzeko jarraitu behar izan nuen.

Aurten titular izan zara. Oraingo denboraldi berriko zein itxaropen daukazu?

(Josu) Oraindik ez dakigu ezer. Gurekin ez dute hitz egin eta ez dakigu zein

egongo garen edo zein ez, norekin kontatzen duten eta nor etorriko den. Lehendakaria den bezalakoa izanda, auskalo zenbat ekarriko dituen. Baina hori bai, ilusio handia daukat eta ea jarraitzeko aukera daukadan. Oraingo, oportetean pentsatzea izango dut hobere-na.

Zer moduz Peterman lehendakariarekin?

(Josu) Oso gizon berezia eta nahiko burugogorra da. Futboleko kapritxo sartu da eta hobby bat bezala eramaten du. Diru bat inbertitu du eta etekina atera nahiko dio, baina beretzat, hobby bat da.

(Igor) Peterman gizon berekoa da, beregan bakarrik

pentsatzen du. Protagonista izan nahi du eta Alavesen gainetik bera dagoela erakutsi nahi du.

Ameriketako Estatu Batuetako NBA-ko eredu berdina ekarri nahi du ona. Han dena saldu egiten da eta dena dirua da. Hemen orde, herria dago eta erakundeak daude eta horiekin denekin liskarrak dauka. Ez da kazetariekin bakarrik daukana. Eta berari zerbait gaizki dagoela iruditzen bazaio gutxietsi egiten du eta baita iraindu ere.

Hori guztia nabaritzen al da gero kalean?

(Josu) Bai, hirian asko nabaritzen da. Lehengo urtean kalean, etxeetan eta tabernetan ikusten ziren Alave-

Goian egon ondoren bigarren mailan aritzea gogorra da. Horregatik, igoera hau oso berezia izan da guretzat.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elikagiside zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

biok

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

sen aldeko banderak eta orain askoz gutxiago. Hori ez da ez daudelako alde, baizik eta gertutasuna gutxitu egin delako. Izan ere, nola Petermanek ez duen elkarriketarik egiten uzten eta prentsasurekorik ematen, jendeak egunkarian eta beste komunikabideetan ezin izaten du jarraipenik egin.

Aldaketa handia ikusten al duzu lehenengo eta bigarren mailaren artean?

(Josu) Aldaketa izugarria ikusten dut. Bigarren maila oso konplikatu da, izan ere, gol aukera gutxi izaten dira eta jokoa ere gogorra da. Lehenengo mailan ordea, berehala egiten da dena. Edozein hutsegite eginenez gero, jokalaria onak daudenez, gola sartzen dute eta markagailuari buelta ematea oso zaila da. Kalitate aldetik aldea handia da eta momentu batzuetan erritmo aldetik ere bai.

(Igor) Orain arte, Seiscientosen karrera batean Mercedes batekin jokatzen aritu dira, eta orain, lehenengo mailan, denak Mercedesak dituzte eta batzuk agian Bat Formulako autoak. Beraz, gidariak garrantzi handia dauka. Honekin esan nahi dut, lehen nahiz eta gidaria txarra izan Seiscientosen aurka ari ziren, baina orain ez. Beraz, gidari txarra izanez gero, hau da Petermanekin jarraituz gero, zaila izango da ongi joatea.



Eta anaien artean bata besteari elkarriketa egiteak zer sentiarazten dizue?

(Josu) Niri orain ez zait ba-

tere zaila egiten, baina aurreneko hiru elkarriketak arraroak izan ziren..

(Igor) Aurten elkarriketa pilo bat egin dizkiot anaiari,

izan ere, taldean euskaraz dakien bakarra da. Hori dela eta, ez zait batere arraroa egiten. Hala ere, aurtengok ez dira izan anaiari egin dizkiodan lehenengo elkarriketak. Orain dela urte pilo bat, Segura Irratian egin nion aurrenekoa.

Nork maite du futbola gehiago, jokalariai edo kazetariari?

(Igor) Nik gehiago maite dut, gehiago bizitzen dut. Futbol partidu gehienak ikusten ditut eta gozatu egiten dut.

(Josu) Niri futbola jokatzeak gustatzen zait, baina ikusteko ez gehiegi. Partidu interesgarriak ikusten ditut, baina ez daukat nire anaiak daukan grina.

Futbolari bezala zein da zure helburua?

(Josu) Ahal den urte gehienetan futbolekin jokatzen jarraitzea. Ez da erraza, baina saiatu beharra dago. Orain ea aurreneko mailan zer gertatzen den, eta horren arabera, datorren urtean zer egin ikusiko dut.

Eta zurea kazetari bezala?

(Igor) Lan hau gustukoa dut. Ikasketak egin nituenetik kirol kazetaria izatea nuen buruan eta horretan arituko naiz orain arte. Beraz, honetan jarraitzea gustatuko litzaidake.

Bestalde, nahiz eta oraindik gauzak ez garbi egon, uste dut Alavesen partiduak ematen jarraituko dudala.

Orain ohituta gaude, baina, anaiak egindako aurreneko elkarriketak arraroak izan ziren.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak



Josu Sarriegi

Futbol talde bat?

Erreala.

Futbol jokalaria bat?

Xabi Alonso.

Futbola ez den kirol bat?

Pilota.

Ikusi duzun partidurik onena?

Bartzelona Athletiko Madrilen aurka. 0-4 galtzen zihoan Bartzelona eta bigarren denboran bost gol sartu zituenekoa.

Futbol zelai bat?

San Mames.

Entrenatzaile bat?

Etxebe.

Kirol kazetari bat?

Ez daukat inor berezirik.

Nola definituko zenuke anaia?

Gustuko dut nola lan egiten duen. Erraztasuna dauka.



Igor Sarriegi

Futbol talde bat?

Erreala.

Futbol jokalaria bat?

Franco Baresi.

Futbola ez den kirol bat?

Txirrindularitza.

Ikusi duzun partidurik onena?

Munich-ko Bayer eta Manchester United-en arteko partidua Nou Campen. Bayer irabazten ari zen eta azkene-ko bi minutuetan Manchesterrek bi gol sartu zituen.

Futbol zelai bat?

San Mames.

Entrenatzaile bat?

İnaki Satrustegi.

Kirol kazetari bat?

Xabier Usabiaga eta Joxe Mari Apaolaza.

Nola definituko zenuke anaia?

Kasta, jokalaria ona eta goitik ongi ibiltzen dena.



Cebanc-Cdea
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 • 20.018 Donostia

Lanerako prest?






ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Profesionalak hezituz

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Jatetxea arloa.
- Sukaldaritza.
- Gozogintza eta okingintza.
- Jatetxea eta tabernako zerbitzuak.
- Sukalde-laguntzailea, I. maila.
- Ostetua arloa.
- Bidaia agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

INFORMATIKA

- Informatika-sistemen administrazioa (A eta D).
- Informatika-aplikazioen garapena (A eta D).
- Sistema informatikoen ustiaketa.

ADMINISTRAZIOA

- Administrazioa eta finantzak (A eta D).
- Administrazio-kudeaketa.
- Idazkaritza.
- Bulego-laguntzailea, I. maila.

MATRIKULA ZAITEZ!

☎ 943 316 900

Garatze bidean dauden herrietara joango diren kooperante gazteak

Indiara, Nikaraguara eta Boliviara joango dira aurten Beasaingo sei gazte kooperante gisa lan egitera. Uda-ko oporrak alde batera utzi eta beste herrialde batzuetara doaz lankidetzaz egitera.

Susana de los Mozos eta Edurne Mungia Indiara joango dira bi hilabetez. Haurralde izeneko gobernu kanpoko erakundearekin joango dira eta Indian erakunde honek dituen bi proiektutan hartuko dute parte. Rathwa emakumeen bizi baldintzen hobekuntzan lan egingo dute eta baita orfanato batean ere.

Nikaraguan bi hilabetez egongo dira Elisabet Agirre eta Xabier Alustiza. Hauek Honek erakundearekin joango dira eta badute lana.



Elisabetek serigrafia tailer eskolan hartuko du parte eta Xabierrek Somoto gizagarapenerako zentruan.

Alazne Mujika eta Amaia Iturri aldiz Boliviara joango dira. Hauek hiru hilabetez egongo dira bertan Taupa-

dak erakundearekin. Alaznek musika klaseak eman- go ditu eta Amaia internadu batean egongo da.

Denboran zehar bidaiatzeko aukera izango dute haurrek udan

Aurtengo udan hemendik mugitu gabe, denboran zehar bidaiatzeko aukera izango dute haurrek. Izan ere, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak eta Ezkioko Igartubeiti museoak lantegi kooperatiboak antolatu dituzte.

Uztailan eta abuztuan 7 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek hainbat gauza ikas- teko aukera izango dute baina jolasen bidez. Horrela, lantegi ezberdinei esker, XIX. mendeko ohitura eta historia ikasiko dituzte.

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoan "Munduari bira 80 egunetan" izeneko lantegia antolatu dute. Ondorioz, Tximuaren joko-



arekin munduari bira emango diote 80 egunetan. Joko honetan parte hartzen duten haurrek XIX. mendea ezagutuko dute baina modu dibertigarrian.

Joko honen izenburua Julio Vernerren eleberria oinarri hartuta jarri dute. Izan ere, aurtengoan Julio Verne hil zela ehun urte betetzen dira.

Bestalde, garai zaharrak ezagutzeko parada izango dute Ezkioko Igartubeiti baserrian. Umeek baserri bateko bizimodua ezagutuko dute joko ezberdinen bitartez. Biztanleak, animaliekiko bizikidetzaz, lanabesak, jantziak, gizarte eta familia harremanak eta nekazal ekoizpenak, besteak beste.

Gehienez, 50 hurreko taldeak izan beharko dira eta museo bakoitzean ordu eta erdiko jokoak egingo dituzte.

Bi bisiten ondoren, Ormaiztegiko parkean eta pilotalekuan nahi dutena egiteko denbora libre izango dute.



Zegama

Aizkorriko Lagunen Eguna

Aurtengoan ere ospatuko da Aizkorriko Lagunen Eguna. Ohi bezala, uztailako lehenengo igandean ospatuko da, hau da, uztailaren 3an eta aurren, seigarren edizioa izango da.

06:00etan: Mendi irteera Aizkorri. Zegamako plaza izango da irteera Amezti Mendi elkartearen gidaritzapean.

08:30etan: Aizkorriko gailurra burutzer.

08:30etik 09:00etara: Amezti Mendi elkartea kaba banatuko du Aizkorriko gailurrera iritsitako mendizaleen artean.

10:30etan: Meza S. Spiritun Iñaki Aranzadiren eskutik.

11:00etan: Hamaiketako Zegamako Udalak eskainita.

12:00etan: S. Spiritutik jaitsiera.

13:30etan: Zegamara iritsi eta argazkia aterako da.

15:00etan: Bazkari herrikoia udal pilotalekuan bertsolari eta trikitilariekin.

18:00etan: Erromeria herriko kaleetan erraldoi eta buruhandiekin.

Ataun-Aia

Jaietan murgilduta

Uztailak 1, ostirala: Umeen eguna

16:30etan: Ume jolasak xurdinen eskutik.

Ondoren: Txokolatada.

19:00etan: Sagardo probaketa.

22:30etan: Kantaldia. "Pil-pil" iparraldeko abeslari taldea (Jojo eta Ramuntxoko partaidea).

Ondoren: Izer eta Alabier trikitilariak goizalderarte arituko dira.

Uztailak 2, larunbata: Santa Ixabel eguna eta gazteen eguna

11:00etan: Meza nagusia.

11:30etan: Ataungo dantzari txikien saioa izango da eta ondoren luntxa egongo da.

14:00etan: Bertsolari eta trikitilarien saioa. Bertsoan Peñagarikano eta Irazu arituko dira eta Maitane eta Aiora trikitiarekin.

14:30etan: Auzo bazkaria trikitilari eta bertsolariekin.

18:00etan: Bertsolarien bigarren saioa.

18:30etan: Toka txapelketa egingo da.

20:30etan: Gazte afaria.

Ondoren: Rock kontzertua Brigada Criminal eta Captain Nemo taldeekin.

Gaucan: Ezein taldeak eskainiko du kantaldia gau guztian zehar.

Goizaldean: Txokolatada.

Uztailak 3, igandea:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Pilota partiduak gazteen maila eta jubentzen maila.

13:30etan: Euskal Herriko eta Kataluniako trikitilarien hartu emana.

17:00etan: XX. Dantzari txikien txapelketa ospatuko da.

Ondoren: Herri kirolak. Aizkolariak Azurmendi-Iriarte eta Ugarteburu-Aierbe II.a. Harrijasotzailea aldi Goenatxo izango da.

Gaucan: Maitane eta Aiora trikitilariak izango dira goizalderarte.

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.



Urdueta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



oskarbi
oinetakoak
ordizia beasain zumarraga arrasate



Goierrri

Esperientziaren eskola zabalik

Dagoeneko zabalduta dituzte esperientziaren eskolako atak. Oraingo honetan datorren ikasturterako, 2005-2006, zerrendak zabalduta dituzte. 50 urte baino gehiago dituzten pertsona oro gonbidatzen dute eskolan parte hartzera. Honako leloa erabili dute jendea bertaratzeko: "Gerturatu eta gozatu esperientzia honekin. Utzi zaitez txunditzen. Ez zaitez konformatu eta zure denbora librea aprobetxatu".

Beraz, ikasturte berriari buruzko informazioa jakin nahi orok, inolako konpromezurik gabe, deitu telefono zenbaki honetara: 943 161537.

Beasain

Triatloia

Datorren larunbatean, hilak 2, Beasaingo V. Triatloia ospatuko da eta Euskadiko zirkuitorako froga puntuagarria izango da. Lasterketa 150 partehartzaileentzat mugatua dago eta kanpotik ere etorriko dira.

Partehartzaileek honako ibilbidea egin beharko dute: lehenengo, 1.500m igeriketa Arriarango urtegi; bigarren, 38 km txirrinduan Arriaran, Salbatore, Ormaiztegi, Liernia, Mutiloa, Segura, Zegama eta bide berdinetik Beasaingo erdigunera itzuliaz; eta azkenik 10 km korrika Beasaingo kaleetan zehar.

Irteera arratsaldeko 16:00etan izango da Arriarango urtegi eta lehenengo sailkatuak 18:00ak aldera hasiko dira helmugaratzen.

Lazkao

XXXI. Udako Euskal Ikastaroak

Uztaila iristearekin batera, Maizpide Euskaltegian Udako Euskal Ikastaroak hasten dira. Hori dela eta, euskaltegian ikasten daudenentzat, herritarrentzat eta goierritar guztientzat hainbat ekitaldi antolatzen dira Lazkaon. Hona hemen uda honetarako antolatu diren ekimenak:

Uztailak 7, osteguna:

22:30etan: Urko abeslariaren kantaldia izango da entzungai Euskadi plazan.

Uztailak 11, astelehena:

22:00etan: "Ezetx lepoa jarri" antzezla izango da ikusgai Euskadi plazan.

Uztailak 14, osteguna

19:00eta: Trikibertsopotea izango da Ekaitz Goikoetxea eta Iker Zubeldia bertsolariekin Lazkaoko tabernetan.

Uztailak 19, asteartea:

22:00etan: "Patagonia. J. Ramon Agirre" ikus-entzunezkoa izango da Euskadi plazan.

Uztailak 21, osteguna:

22:00etan: Drindots musika taldearen emanaldia Euskadi plazan.

Abuztuak 3, asteazkena:

21:30ean: Koldo Amestoy ipuin kontalariaren istorioak entzueko aukera izango da Maizpideko zinema aretoan.

Abuztuak 9, asteartea:

21:30ean: Bertso-trama izango da Jon Maia, Igor Elortza, Ekaitz Goikoetxea eta Iñaki Apalategirekin Maizpideko zinema aretoan.

Abuztuak 18, osteguna:

21:30ean: Herria kantuz Irrintzi taldea izango da Maizpideko zinema aretoan.

Abuztuak 3, asteazkena:

21:00etan: Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak kontzertua eskainiko dute Maizpideko zinema aretoan.



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

ETXEBIZITZAK

salgai

Donostian pisu bat saltzen da Antiguan. 104 metro karra-tu, egongela oso handia, 2 lo-gela (baliteke 3 egitea). Xehe-tasunak, argazkiak eta planoak: usuarios.lycos.es/pisua. Parti-kularra. 943377292 (21:30etik 22:30era deitu).

konpartitzeko

Gasteizen pisu bat elkarba-natzeko bi lagun behar dira. 943801902 / 943800027.

errentan eman

Jakan apartamentua aloka-tzen da udan. Igerilekuarekin. 943216684-943885674.

erosi

Goierri inguruan baserri bat erosiko nuke. 677577717..

GARAJEAK

errentan

Zaldibian garajea alokatzen da. 943162172.

LURSAILAK

erosi

Mutiloa edo Gabiria ingu-ruan lur saila edo basoa ero-siko nuke. 607720324.

BESTELAKOAK

salgai

Musika ekipoa salgai, Fones-tar markakoa. Tabernarako egokia. Urte batean erabilia, egoera onean. 2.300 euro. 615710807 (Jose).

Gurdi denda salgai. Merkea eta egoera onean. 615716077.

Kotxearentzat erremolkea salgai. Estreinu gabe dago, handia, bi frenoduna. 943084507.

Karabana "Monaco costa azul 330" salgai. Matrimonio ohea eta bi litera txiki. Hozkai-lua eta sukaldea. 3000 euro. 658721109.

Ura berotzeko berogailua salgai dago. 670422051.

Paretek egiteko blokeak sal-tzen dira. 646110706.

LC-3 macintosh (apple) orde-nagailua salgai, xaguarekin. 60 euro. Josu, 117 postakutxa, 20200 Beasain.

Bi walki-talkye ICOM (VHF) salgai; 150-160 Mhz, ruletazko-arekin eta 5W, kargadoreare-kin. 180 euro biak. Josu, 117 postakutxa, 20200, Beasain.

Ordenagailu portatil berria salgai. AMC-Atlon-XP. 627568311.

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, Urbialde plaza, 7 behe, Beasain**

IBILGAILUAK

salgai

Ford Escor 1.8i 16V 105CV gasolina salgai. Oso egoera onean. Gauza berri askorekin. 657700944 (Mikel).

Renault Safrane 2.2 TD salgai. BVX matrikuladuna. Oso egoera onean, beti garagea egona. Egurdian edo gauean deitu. 943652468.

Suzuki RMX 50 motorra salgai, 2002. urtekoa. Kilometro gutxi eta oso egoera onean. 680799653.

Golf 4. seriekoa salgai. 115 zaldi, 1.9 TDI. Sei martxa. 2001. urtekoa. Oso egoera onean. 665704234.

Seat Ibiza 1.9 diesela salgai. Gris metalizatua. 6 urte, 70000 km. Irrati-CDa, 5 ate, egoera onean. 687413379.

Scoda Octavia salgai. SS-BD matrikuladuna. Aire egokitua. "Manos libres" instalazioa. Oso egoera onean. 656794350.

Citroen C-15 furgoneta salgai. Lo egiteko prestatuta. SS-AT matrikuladuna. Oso egoera onean. 685720279.

Yamaha Facer 600 salgai. 1998. urtekoa, SB-BD matrikuladuna eta 50000 km dituen. Beltza. 943670609.

ANIMALIAK

salgai

Brie arrazako artzain txakurkumeak salgai. Pedigreedunak. 636979154.

LANA

eskaerak

Neska edo emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko Beasainen. Goizez deitu, 652713580.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko. 20:00etatik aurrera deitu. 943028855.

Neska bat behar da etxeko lanak egiteko arratsalde. Gidabaimera. 630893295.

Beasainen etxeko lanak egin eta adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar da. 943885135.

21 urteko neska langilea, uztailean edozein jaian lan egiteko eskaintzen da. Tabernan, jatetxean edota beste zerbaitetan, arazorik gabe. Saioa. 665702296.

Zerbitzaria behar da tabernan lan egiteko. 629160500 / 627122097.

Emakume bat behar da Beasainen etxeko lanak egiten laguntzeko eta zazpi urteko haur bat zaintzeko. 943881302.

eskaintzak

Emakumea eskaintzen da gidabaimeraekin mezularitzan lan egiteko edota adineko pertsonak zaintzeko. 678781958 943027227.

Neska euskaldunak Ordizian klase partikularrak ematen ditu ekaina eta uztailean. Goizez eta arratsalde, DBH 2 arteko maila guztiak. Talde txikitik edo banaka. Esperientziaduna. 607658507.

Adineko pertsonak gauez zaintzeko prest dago emakume bat. Esperientzia dauka. Papearak behar bezala dauka. 670376201.

Haur hezkuntza ikasten ari den neska bat haurrak zaintzeko prest dago. Interesatuak deitu 619860243 telefonora.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

Ikastetnik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Joxxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea

Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

ZUZENKI

A HOLKULARITZA



Abokatuak

**Enpresen asesoria
eta gestioa**

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet .net

Hirigoien, 7 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net



Ordiziako Mintegi-Mujika sendia 1924 inguruan

Xanti Mendizabalek utzitako argazkian bere ama, osaba-izebak eta aiton-amonak ageri dira. Ordiziako Elizkalen bi-zi ziten eta garai haietako familia ugarien adibide dira. Aita Ziriako, Ordiziako Arramendikoa, eta ama Pantxiska, Itsasondokoa, beren 11 seme-alabekin. 12. haurra ere izan zuten baina txikitan hil zitzairen. Seme zaharrena 1898an jaio zen eta alaba gazteena 1918an. Hauetan bizirik zen bakarra aurtengo martxoan hil da 90 urterekin.

Zutik (ezkerretik eskuinera): Marcial, Kandida, Joxe, Andres, Maria, Bixente, Sebas, Bittori, Angel eta Periko.

Eserita: Pantxiska, Pilar eta Ziriako.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**

ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartera
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

INFORMATIKA-GELA

✓ Ikastaro berriak:

- Mekanografia
- Word, acces, excel...
- Internet
- Ingelera

UDA IKASTAROAK

Uztaila eta abuztua

- ✓ Errekuperazioak
- ✓ Udako lanak
- ✓ Datorren ikasturterako prestaketa
- ✓ Ingelera
- ✓ Tailerrak: ikasketa teknikak, irakurmena/idazmena, matematika/kalkulua

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Azken azterketak
- ✓ Maila guztiak: LH, DBH, batxilergoa, unibertsitate-maila, moduloak...
- ✓ Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Aseguru konfidentzia

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behe

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

MULTIOPTICAS

EGUZKITAKO BETAURREKOAK

EROSI eta ERAMAN

FRUIT Bildumako

BESTE BAT

OPARI



Kolore ezberdinak aukeran • 60 euratik gorako erosketetan • Eskaintza baliagarria 2005/07/31 arte.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA


Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

faktore
KOMUNIKAZIO
GRAFIKOA

diseinu grafikoa +
errotulogintza +
publizitatea +
serigrafia +
web +



GOIERRI

Herria eta gehiago

Parke Naturala eta Kulturala

G I P U Z K O A - E U S K A D I



ARALARREKO INTERPRETAZIO ZENTRUA ATAUN
 IGARTZA, ERTAROKO MULTZOA BEASAIN
 ELIKADURA ETA GASTRONOMIAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ORDIZIA
 GOIERRIKO INTERPRETAZIO ZENTRUA ORDIZIA
 ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
 ERTAROKO INTERPRETAZIO ZENTRUA SEGURA
 EGURRAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ZEGAMA
 PARKE KULTURALA ZERAIN

JATETXEA

ARTZAIENEA- Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA- Gabiria	943 73 36 22
DOLAREA- Beasain	943 88 88 29
KUKO- Ormaiztegi	943 88 28 93
LOINAZ- Beasain	943 88 20 07
MANDIOA- Zerain	943 80 17 05
MANDUBIA- Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ- Ordizia	943 88 06 41
OIANGUREN - Ordizia	943 16 13 71
OSTATU- Zegama	943 80 10 51
OSTATU- Zerain	943 80 17 99
OTENE- Gaintza	943 88 98 48
OTZURTEKO BENTA- Zegama	943 80 12 93
TXINDOKI- Ordizia	943 88 40 49
URBIETA - Ataun	943 18 00 19
URKIOLA- Beasain	943 08 61 31
JULKI GOZOTEGIA - Beasain	943 88 82 37
UNANUE GOZOTEGIA- Ordizia	943 88 15 51

KOMERTZIOA

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia

NEKAZALTURISMOAK

ALDARRETA- Ataun	943 18 03 66
ARRIETA- HAUNDI- Zegama	943 80 18 90
BORDA- Olaberria	943 16 06 81
LAZKAO ETXE- Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE- Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE- Zerain	680 17 12 91
ONDARRE- Segura	943 80 16 64
PAGORRIAGA- Beasain	943 58 20 71
TELLERINE- Zerain	943 58 20 31

SAGARDOTEGIAK

MARISQUERIA KORTA- Gabiria	943 88 71 86
OTATZA- Zerain	943 80 17 57

ZERBITZU TURISTIKOAK

ALARPE- ZALDIZKO IBILBIDEAK	943 88 05 76
ALDABE- GIDA ZERBITZUAK	943 80 15 05
EKITUR- GIDA ZERBITZUAK	943 88 23 09

LANDETXEAK

DINTIBARRENA- Zegama	943 80 00 98
LIERNIGARAKOA- Mutiloa (Lierria)	943 80 16 99
ORUE - Mutiloa	943 80 19 00

HOTELAK

CASTILLO *** - Olaberria	943 88 19 58
IGARTZA * - Beasain	943 08 52 40
SALBATORE * - Beasain	943 88 83 07

PENTSIOAK

ITXUNE ** - Ormaiztegi	943 88 73 51
ZEGAMA OSTATUA ** Zegama	943 80 10 51
ZEZILIOENEA ** - Olaberria	943 88 58 29

ATERPETXEA

ATAUN	943 18 00 34
SEGURA	943 80 10 10
ZERAIN	943 80 15 05

KIROLAK

KIROL ZERBITZUAK- Ordizia	943 88 93 33
---------------------------	--------------

Altzaga Arama Ataun Beasain Gabiria Gaintza Idiazabal Itsasondo Lazkao
 Legorreta Mutiloa Olaberria Ordizia Ormaiztegi Segura Zaldibia Zegama Zerain

www.goierri.org

GOIERRI TURISMOA goitur.goieki@goierri.org Tlf. 943161823 ORDIZIA

